

**2013KO IRAILAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2013ko uztailaren 4ko aktaren onespena.

2013ko uztailaren 4ko aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Josi Insausti jaunak (H1): “En el último Pleno en Ruegos y Preguntas cuando Garbiñe nos hizo historia cronológica de las distintas fases habidas, entre otras cosas decía que los dos meses de verano el cine estaba cerrado, y lo planteaba como algo negativo, en el sentido de que se pagaba a la empresa prestadora del servicio. Es un tema bastante comentado. Siempre se ha dicho que se paga por doce meses, cuando resulta que en julio y agosto no se trabaja. Sin embargo, en la Junta de Gobierno Local que se hizo en el mes de septiembre, con motivo de la licitación de la explotación del cine Usurbe, constato que hay una contradicción entre lo que se dijo en ese Pleno y lo que se llevo a la Junta de Gobierno Local para aprobar. En el pliego aprobado para la licitación, se reconoce que los meses de julio y agosto está cerrado, pero se pueden realizar tareas de mantenimiento, e además del precio de licitación se establece que el pago, lo será por doce meses. No terminé de entender el por qué se decía antes que no estaba bien pagar por dos meses que no se trabajaba, y ahora quien decía eso, ha presentado unos pliegos que justamente vienen a corroborar que el pago de esos meses, se entiende que estaba bien pagado porque se llevaban las labores de mantenimiento, como así se estuvo argumentando constantemente.”

Alkate jaunak (BILDU): “Eso que tiene que ver con aprobar el acta o no?”

Josi Insausti jaunak (H1): “Es una consideración que quiero hacer en el acta entre lo que se dijo en el Pleno y después de lo dicho, lo que se ha hecho posteriormente en septiembre que es totalmente distinto a lo que se dijo.”

Alkate jaunak (BILDU): “Sigo sin entender, pero bueno...”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Gai hau hogei mila aldiz atera da batzordeetan eta azalpen guztiak eman dira. Norbaitek fantasmak ikusi nahi baditu ez dauden tokian!. No voy a entrar a decir lo mismo que dije la semana pasada en la comisión de cultura y euskera donde tratamos el tema del cine. ¡Basta ya!”

Josi Insausti jaunak (H1): “Lógico que no quieras hablar sobre el tema porque entre lo que dices y lo que puego propones a la Junta de Gobierno Local es algo distinto.”

Besterik gabe, 2013ko uztailaren 4ko akta onartzea proposatu da eta bozketa eginda, aho batez onartu da.

2.- 29 AREAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2012ko ekainaren 7ko hasierako onespeneren baldintzak jasotzen dituen dokumentua jendaurrean jartzea.

Ezagutzera eman da, hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Ondarre, 29 arearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruz, 2012ko ekainaren 7ko hasierako onespeneren baldintzak jasotzen dituen dokumentua jendaurrean jartzeko proposamena.

AURREKARIAK

1.- 2012ko ekainaren 7an, Udalbatza Osoak ondorengo erabakia hartu zuen:

“Lehenik. I.GUERRA, S.A.ren alegazioa ebaztea, baldintza hauekin onartuz:

- Arau Subsidiarioen aldaketa dokumentuan, eraikigarritasun haztatu gehikuntzari dagokion (C, E, G eta H lursailak) erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte artesari eta zuzkidura kargari dagokion diru kopurua aurreikustea, kontutan izanik E lursailaren eraikigarritasun gehikuntza, 1.608,75 m²koa dela. Era berean afektatutako lursailen jabeek konpromiso hori azaltzen duen dokumentu ere aurkeztu egin beharko dute.
- Beraz, zama lan jardueran, ibilgailuen maniobra eta aparkamenduak partzelaren barruan egiteko adina espazio libre egokiren antolaketara justifikatu beharko da, eta horretarako 26 aparkaleku plaza gaitu beharko dira ($1278,75 \times 2 / 100 = 25,575$ plaza).

Bigarren. EUN SISTEMAS, S.L.ren alegazioa ebaztea, zentzu honetan:

- Alegazioa onartzea, txosten juridikoak dioten moduan eremuko jabeen artean urbanizazio zama lan berbanatzeari buruz.
- Gauzatutako oineko okupazio azalera eta azalera eraikia Aldaketa Puntualeko Dokumentuak baino handiagoak direla kontutan izanaz, azalera hauek, behin-behineko onespenerako, zuzendu egin beharko dira aldaketa puntualeko dokumentuak gauzatutako azalera jasoaz eta Beasaingo Planeamenduko AASS-etako 79.4 artikuluko zama lan jarduerarako, ibilgailuen maniobrarako eta lantegiko nahiz kanpoko aparkalekurako dagokion espazio librearen baldintzak bete beharko ditu; (JE-2) jardueran ekonomiko produktibo isolatuetako partzei dagozkienak, hain zuzen ere.

- *Hirigintzako arau-haustea dagoela baieztatzen da.*
- *Alegazioaren beste adierazpenak deuseztatzea, txosten jurídiko eta teknikoen arabera.*

Hirugarren. *Aldaketa dokumentuan ondorengoa jaso behar da:*

- *Aldaketa Puntualeko Dokumentuan partzela bakoitzaren jarduera ekonomiko mota zehaztu beharko da, JE-1 jarduera ekonomiko produktibo isolatua edo JE-2 mehelin arteko jarduera ekonomiko produktiboa; hau da, indarrean dauden AASS-etan bezala mantenduko den edo beste era batera izendatuko diren adierazi beharko da.*
- *Arau Subsidiarioen aldaketa dokumentuan, arau urbanístiko orokorrak eta partikularrak ere zuzendu egin beharko dira.*

Laugarren. *Dokumentuari berriro ere hasierako onespina ematea eta jendaurreko epe berri bat irekitzea, I.GUERRA, S.A.ren alegazioa onartzeak funtsezko aldaketa suposatzen duelako, hasieran aurreikusitako estruktura-ordenazioan.*

Bosgarren. *Behin-behineko onespenerako dokumentu berri bat aurkeztuko da, 2012ko martxoaren 15eko hasierako onspeneko dokumentuaren baldintzak eta alegazioen onarpenak suposatzen dituen xehetasunak jasoz.*

Seigarren. *Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, GAOean, Diario Vascon eta Berrian iragarkiak argitaratuz eta prozeduran interesatuak direnei banakako jakinarazpenak eginez.”*

2.- Bigarren hasierako erabaki hau (lehenengoa 2012-03-15ean hartu zen), hilabeteko epean jendaurrean jarri zen, Berria, Diario Vasco eta GAOean, 2012ko ekainaren 12 eta 13an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz eta 29 areako jabeei jakinarazi zitzairen. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

3.- Dokumentuak, ordea, hasierako onspenekiko erabakien baldintzak betez azaroko hilabete arte ez zen aurkeztu. Udal arkitektoak informatu zuen, adieraziz xehetasun batzuk zuzendu beharra zegoela. 2013ko ekainean zuzenketak horiek jasoz berriro aurkeztu zen.

4.- 2013ko uztailaren 9an eta irailaren 16an, txosten tekniko eta juridikoak hurrenez hurren eman ziren, adieraziz dokumentuak legearen aurreikuspenak eta 2012ko martxoaren 15eko eta ekainaren 7ko erabakietako baldintzak betetzen dituela, baina ohartaraziz behin-behineko onspen-erabakia hartu aurretik, afektatuek defendatzeko aukera izan dezaten izapidatzen ari den Arau Subsidiarioen aldaketarekiko eta segurtasun juridikoa bermatzeko, bidezkoa izango zela jendaurreko epe berria irekitzea, interesatuek dokumentua aztertu dezaten, alegazioak aurkezteko aukera emanez.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2013ko ekainaren data duen, Ondarre, 29 areari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentua, hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Berria, Diario Vasco eta GAOean iragarkiak argitaratuz, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Bigarren. Prozeduran interesatuta dauden guztiei erabakiaren banakako jakinarazpena egitea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

3.- 1 AREAKO HIRI ANTOLAMENDUKO EGITASMO BEREZIA. Alde Zaharra, 1 areako Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxeko hezkuntza erabilera duen lursailari buruzko Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onespina emateko proposamena.

Ezagutzera eman da, hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko abuztuaren 7an, Alkateak ebatzi zuen, Alde Zaharra, 1 areako Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxeko hezkuntza erabilera duen lursailari buruzko Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziari hasierako onespina ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jarri zen, Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2013ko abuztuaren 8, 9an eta 12an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz. Sustatzaileari ere, ebazpena jakinarazi zitzaion.

3.- Alegazioak aurkezteko epean, ez zeni nolakorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Alde Zaharra, 1 areako Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxeko hezkuntza erabilera duen lursailari buruzko Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onespina ematea.

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

4.- IRESGARRITASUN PLANA. Onartzeko proposamena.

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Gaia: Iresgarritasun Plana.

Lau ekitaldi dituen eta 2.247.524,34 €ko aurrekontua duen Iresgarritasun Plana aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari proposatzen dio Plana ONARTZEA.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Iresgarritasun plana hau onartzea dator dirulaguntza batzuk atera direlako eta dirulaguntza horietara aurkeztu ahal izateko, gutxienez plan bat onartuta eduki behar dugulako. Ondoren ekitaldi horiek aztertu eta zehaztu beharko dira zein gauzatu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

5.-HAUR PARKEEI IZENA EMATEA. Onartzeko proposamena.

Kultura batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

GAIA: Beasaingo haur parkeei izena ezartzeko irizpidea

Aurrekariak:

2013ko maiatzean Zerbitzu sailak Beasaingo parkeen zerrenda bat pasatu zuen Kultura eta euskara sailera eta toponimia izenak ongi zeuden ikusteko eskatuz.

Zerbitzu sailak bidalitako zerrenda

- 1.- ARANA GAIZTARRO PARKEA
- 2.- BARRENDAIN PARKEA
- 3.- EZKIERDI PARKEA
- 4.- GERNIKA PARKEA
- 5.- ITURRALDE PARKEA
- 6.- 0-100 PARKEA
- 7.- KAROBI PARKEA
- 8.- TRENBIDE PARKEA
- 9.- S5 PARKEA
- 10.- BARANDIARAN PARKEA
- 11.- PEATEGI PARKEA
- 12.- MURUMENDI PARKE 1
- 13.- MURUMENDI PARKE 2
- 14.- GARIN PARKEA
- 15.- ARRIARAN PARKEA

Kultura eta euskara sailak gaia aztertu zuen tokiko toponimiako aditu batekin eta proposamen zehatza gauzatu du.

Aurreko kultura eta euskara sailean gaia aztertu bazen ere, ez zen proposamena onartu, Zapatari kalea, Trenbide parkea eta Karobi parkea, -KO atzizkirik gabe izatea proposatu zelako eta Batzordeburuak hurrengo bilerarako aztertuko zela adierazi zuen.

Gaia berriro aztertu ondoren, kultura eta euskara sailak **-KO** jartzeko arrazoi hauek aurkezten ditu:

- Euskaltzaindiaren irizpideak jarraitzea. Toki izena+deklinabide hondarkia+izen arrunta osaketa gomendatzen duelako Euskaltzaindiak
- Beasaingo Udalak orain arte hartu duen bideari jarraitzea. Udalak aurretik horrela izendatuak ditu zerrendako parke batzuk
- Eremu horretan izen hori zuen baserria egotea eta toponimia izen hori jasotzea egoki ikusi da.
- Hirigintza batzordean hartutako erabakia, oraindik orain, Iturraldetxikiko industrialdea jartzeko proposamena egin zion kultura eta euskara batzordeak.

Eta ondorioz Kultura eta euskara sailak ondorengo proposamena egiten du.

- 1.- ARANA GAIZTARRO PARKEA
 - 2.- BARRENDAINGO PARKEA
 - 3.- EZKIERDIKO PARKEA
 - 4.- GERNIKA PASEALEKUKO PARKEA
 - 5.- JOAN ITURRALDE PARKEA
 - 6.- ZAPATARIKO PARKEA
 - 7.- KAROBIKO PARKEA
 - 8.- TRENBIDE KALEKO PARKEA
 - 9.- MARTORENAKO PARKEA
 - 10.- JOSE MIGEL BARANDIARAN PARKEA
 - 11.- PEATEGIKO PARKEA
 - 12.-MURUMENDI ESKOLAKO PARKEA 1
 - 13.-MURUMENDI ESKOLAKO PARKEA 2
 - 14.-GARIN AUZOKO PARKEA
 - 15.- ARRIARAN AUZOKO PARKEA
-

Horren ondorioz, Kultura eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egin dio:

Lehena: Herriko toponimia historikoaren onerako, Udalak ofizialki hala onartzea proposamena

Bigarrena: Udalak haur parke izen hauen erabilpen zuzena egitea

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

6.- OTAri buruzko ORDENANTZA. Hasierako onespina ematea.

Alkatea jaunak (BILDU): "Orain dela urtebete gure aldetik hasitako lanketa bat da, aurretik ere zerbait landuta zegoelako. Teknikoki landu den gai bat da eta aurrekoan udal antolakuntza batzordetik pasatu zen. Behin martxan jarri eta gero ere aztertzen jarraitu beharko dela pentsatzen dugu, segur aski aldaketak egongo direlako eta egunez egunekoak erakutsiko digulako nola jokatu.

Ezagutzera eman da, OTAri buruzko ordenantza, hau da:

"TRAFIKO ETA APARKAMENDUAREN ORDENANTZA

1. Artikulua.

Trafiko eta Zirkulazio arloko Ordenantza hau emateko eskumenak Udalari eman dizkioten Legeak: Apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, 25.2.b) artikuluan, eta martxoaren 2ko 339/1990 errege Dekretu Legegilearen 38 artikulua, Trafikoari, ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Seguritasunari buruzko Legea onartzen duen Legearen testu artikulatua onartzen duen 1997ko martxoaren 24ko 5. Legearen artikulua bakarraren b) idazkiak aldatua.

2. Artikulua.

Zerbitzu publiko horren helburua araututako aparkalekuen Udal Zerbitzu publikoa arautzea eta aparkaleku eskariari aurre egitea da, hiriaren kalitatea eta irisgarritasunaren helburu orokorrak kontuan hartuta, erabilera publikoa duten bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze-aldiak modu funtzional batean antolatzea, eta betearazteko ere neurriak ezartzea.

3. Artikulua.

Araudiaren barruan aparkatzeko denbora tartea mugatuko da, baita kokalekuak ere, guneak eta ordutegiak bereiztuta, Ordenantza honetako arauen arabera. Araututako aparkaleku gisa behar den bezala seinaleztatuta dauden gune edo bide publikoetan ibilgailu bat aparkatzeagatik ordaindu egin beharko da.

4. Artikulua.

Ordenantza honetako 2. Artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain, eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, haizetakoaren barnealdean, eta kanpoaldetik osorik ikusteko moduan, makina automatikotik hartu eta aparkatzea baimentzen duen tiketa edo baimendutako guneetarako aplikagarri den egoiliar txartela jarri beharko da.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherak hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak Ordenantza honetan araututako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe uzteko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztatutako guneetan ez dute aparkatzeko txartelik jarri beharko ondoren zehazten direnak:

- Udal Zerbitzu publikoekin lotura duten ibilgailuak.
- Karga eta deskarga egiten ari diren ibilgailu komertzialak, horretarako egokitutako aparkalekuetan.

- Auto-taxi ibilgailuak gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.

- Larrialdietako ibilgailuak zerbitzua ematen ari direnean.
- Ibilgailu automobilak, gidaria edo bidaiariren bat barruan dagoenean eta aparkatze-aldia 5 minutu baino gutxiagokoa denean.

- Egoiliarrentzako txartela duten ibilgailuak.
- Elbarriek, araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren sistemak araututako kaleetan aparkatu ahal izango dute, aurretik parkimetroetan behar den ordainketarik egin gabe.

- Moto, ziklo eta ziklomotorrak.

5. Artikulua.

Aparkaleku mugatuko gune bakarra egokituko da, eta honen barruan sektore ezberdinak izango dira.

Sektoreak ondorengo hauek dira:

Sektore Marroia: Erauskin plazan kokatuta dauden aparkalekuak.

Sektore Urdina: Esteban Lasa (1etik 7ra eta 2tik 12ra), Esteban Lasaren barrualdean dagoen aparkalekua (4tik 12ra), San Inazio (1etik 19ra eta 2tik 14ra), Oriamendi (Erauskin plazatik Garmendia Otaola kaleko bidegurutzeraino), Trenbide (Barrendain plazatik Joan Iturralde kaleko bidegurutzeraino), Gernika pasealekua, Kale Nagusia (Erauskin plazako bidegurutzetik Joan Iturralde kaleko bidegurutzeraino eta Kale Nagusia 40ko atzealdea).

Sektore Berdea: Gipuzkoa plazan eta Zaldizurreta kalean 9tik 19ra, atzealdean kokatuta dauden aparkalekuak.

Sektore guztientzako ordutegia hau izango da: Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

20:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:00etatik aurrera, igandeetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora mugarik izango.

Abuztuan eten egingo da araututako aparkaleku sistema.

6.- Artikulua.

Ordenantza beteko dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da, horretarako behar diren bitarteko material zein pertsonalekin.

7.- Artikulua.

Aparkatzeko gehienezko denbora-tarte hauek ezartzen dira:

Sektore Marroia: Gehienez ordubete. Ezingo da sektore honetara bueltatu ondorengo 2 orduetan.

Sektore Urdina: Gehienez 4 ordu. Eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da eta ezingo da aparkatu aparkatze-aldia mugatuta duen sektore bakar batean ere ondorengo 2 orduetan.

Sektore Berdea: Gehienez egun erdia, hau da, goiz osoa edo arratsalde osoa. Eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da eta ezingo da aparkatu aparkatze-aldia mugatuta duen sektore bakar batean ere ondorengo 2 orduetan.

Egoiliarraren txartela duten ibilgailuek gune osoan aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe sektore marroian (Erauskin plaza) izan ezik, horretarako ezarritako kuota ordainduta eta egoiliarraren txartela ikusgarri izanda.

Erabiltzaile guztientzako eta sektore guztietako aparkalekuetan lehenengo 15 minutuak doan izango dira, baina TAO egoiliar txartela ez dutenek sektore guztietako sisteman matrikula sartu beharko dute, eta egoiliar txartela dutenek sektore marroian bakarrik sartu beharko dute matrikula.

8.- Artikulua

Egoiliartzat hartuko dira Trafiko Zuzendaritza Nagusian artikulua honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

Autoak edo ibilgailu mistoak izan beharko du.

Kale-zerrenda: Zaldizurreta (1etik 19ra), Esteban Lasa, Martina Maiz, Igartetxe, Bista Alai (10etik 16ra eta 9tik 19ra), Andre Mari (1etik 13ra), Erauskin (2-4 eta 7), San Inazio, Urbialde plaza, Oriamendi (4tik 30era eta 3tik 29ra), Nekolalde (2tik 24ra eta 7tik 27ra), Garmendia Otaola 1-2-3, Barrendain plaza, Nafarroa etorbidea (1etik 25era), Kale Nagusia, J.M.Iturriotz (1etik 15A-15Bra eta 2tik 16ra), Bideluze plaza eta Jose Martin Arana kalea.

9.- Artikulua: TARIFAK

Tarifak, Udalak bere garaian onartutakoak izango dira eta Ordenantza Fiskalean jasota egongo dira.

10.- Artikulua: SALAKETEN ORDAINKETA

Kudeaketarako sistemak 13. artikuluan a eta c ataletan jasotako arau-hausteen salaketak berehala ordaindu ahal izateko aukera ematen du, beti ere ordaindutako denbora amaitu zenetik bi egun igaro baino lehenago ordaintzen bada eta zerbitzuek ibilgailua erretiratzeko edo ibilgetzeko neurririk hartu ez badute. Ordaindu beharko den kopurua Ordenantza honetan jasotakoa izango da.

Parkimetroan ordaindu beharreko kopurua arau-haustearentzako ezarritako zigorraren bostena izango da.

Ordaintzeak ez du esan nahi ibilgailuak aparkatutako tokian jarraitzerik daukanik, berehala erretiratua izan behar du, edo bestela ibilgetua edo bide publikotik erretiratua izan daiteke, Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea, Trafiko, Motorrezko Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Legeak onartutako testu artikuluek bere 70 eta 71 artikuluek diotenaren arabera.

Aurre ordainketa parkimetroan egingo da.

11.- Artikulua

Egoiliarraren txartela

Egoiliar txartela lortzeko, inprimaki ofiziala behar bezala beteta aurkeztu beharko da, ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuarekin batera.

Ibilgailuko egoiliar txartel bakarra banatuko da.

Egoiliar txartela duten pertsonak izango dira bereizgarri horren erantzuleak. Beraz, helbide- edo ibilgailu-aldaketak Beasaingo Udalean jakinarazi beharko dituzte, sor litzakeen ondorioei begira.

Txartelean ibilgailuaren matrikula eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira.

Egoiliar txartela emateak tasak sorraraziko ditu; Udalak zehaztuko ditu tasa horiek, urtero, ordenantza fiskalaren bidez.

Egoiliar txartela lortzeko bete beharreko baldintzetako bat aldatzen bada baimendutako epean, txartela baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Egoiliar txartel baten titularrak etxebizitza edo ibilgailua aldatzen baditu, etxebizitza edo ibilgailu berriari dagokion txartela emango zaio. Ez du tasarik ordaindu beharko, etxebizitza berria gunearen barruan baldin badago.

Halaber, aurreko txartela itzuli eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren kopia bana ere aurkeztu beharko du. Honako arau hau bete ezean, aurreikusitako zigorrez gain, egoiliarrentzako txartela ezeztatu egingo zaio, eta ezin izango du berririk atera, horretarako eskubidea izan arren.

Egoiliar txartela lortu ahal izateko eskatzaileek ez dute Beasaingo Udalarekin inolako zorrik izango.

Zirkulazioko baimena enpresa baten izenean duten ibilgailuen jabe diren egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori. Kasu horretan, enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute egiaztatzeko ibilgailu hori eskatzailearen erabilera pertsonalerako dela.

Ibilgailua (leasing edo renting) alokairuan duten egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori, ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala egon behar dutelarik.

Txartel bereziaren baldintza orokorrak egoiliarrentzako txartelarentzako ezarritakoak berberak izango dira.

Txartelaren indarraldia aipatzen den urte naturalaren bat egingo du, urtea pasa ondoren txartela iraungi egingo da eta berria hartzea beharrezkoa izango da eta prezioa dagokion Ordenantzan jasotakoa izango da.

12.- Artikulua.

Alkatetza-lehendakaritzak txartel berezia eman ahal izango du gune jakin baterako eta urtebeteko balioarekin:

- Ordezkaritza diplomatikoen Ibilgailuentzako.
- Udalaren iritziz baldintza bereziak dituzten ibilgailuentzako.

Txartel hori lortzeko, Alkatetza-lehendakaritzak kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Txartel berezi horri ere Ordenantza honetatik dagozkion artikuluek ezarritako zuzenketak ezarriko zaizkio.

13. Artikulua.

Ordenantza honetako artikuluek ezarritakoa urratzeak edota Alkatetza-lehendakaritzak honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat urratzeak ere, legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Ondorengoak hartuko dira arau-haustetzat:

- a) Aparkatzeko ordutegi-txartelean zehazten den denbora gainditzea.
- b) Aparkatzeko ordutegi-txartelik gabe edo behar bezala erakutsi gabe aparkatzea.

- c) Aparkatze-aldia mugatua duen edozein gunetan aparkatzea berriz ere, aparkatze-aldia bukatu ondoren eta denbora-tartea osorik ez erabili arren, 7. Artikuluak ezarritako bi orduko epea pasatu aurretik.
- d) Aparkatu ahal izateko txartel manipulatu edo faltsua erabiltzea.
- e) Aparkatu ahal izateko tiketa edo egoiliar txartel baliogatua, iraungia edo desegokia erabiltzea.
- f) Egoiliarrentzako txartela erabiltzea, bertan zehaztutako ibilgailuaren jabea aldatu denean.
- g) Egoiliar txartelen titularrek helbide aldaketaren gaineko edo ibilgailuaren eskualdatzearen gaineko jakinarazpenik ez egitea.
- h) Txartel berezien erabilera okerra egitea.

14. Artikulua.

13. artikuluan tipifikaturiko arauak isunarekin zigortuko dira, Zirkulazioko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera. Era berean, d), e), f), g), h), ataletan txartel berezia kentzeko aurreikusitako arau-haustek zigortzeko, horretarako ezarrita dauden legezko baliabideak erabiliko dira.

15. Artikulua.

18. artikuluan ezarritako zigorrez gainera, 13. artikuluen a) eta b) atalei dagokienez, ordaindutako denbora bikoizten bada, tipifikatzen diren arau-haustek gertatuz gero, ibilgailuak bide publikotik kenduko dira; izan ere, zerbitzu publikoa asaldatzen dutela ulertuko da.

16. Artikulua.

16.1 Ibilgailu bat bide publikotik kentzen bada, ibilgailuaren gidariak, edo haren ordezkoa den titularrak, honako kontzeptu hauek eragindako gastuak ordaindu beharko ditu:

16.1.1 Bide publikotik kentzea eta ibilgailuen udal-biltegira eramatea.

16.1.2 Ibilgailua udal-biltegira eraman eta 48 ordura, bertan egoteagatik eguneko ordaindu beharreko kopurua.

16.2 Gastu hauen guztien zenbatekoak dagokion Zerga Ordenantzan zehaztuko dira. Zenbatekoak eginiko arau-hausteari dagokion isunarekiko independenteak izango dira.

17. Artikulua.

13. artikulua zehaztutako arau-haustek, d), e), f) ataletan zehaztutakoa izan ezik, arinak izango dira; d), e), f) ataletan zehaztutakoak arau-hauste larriak izango dira.

18. Artikulua.

Arau-hauste arinak 40 €-ko zigorra izango dute.
Arau-hauste larriak 200 €-ko zigorra izango dute.

19. Artikulua.

Ordenantza honetan jaso ez diren kasuetarako, ondorengoak hartuko dira kontuan: Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legea, eta bere garapenerako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.

Xedapen gehigarri bakarra.

Ordenantza hau aplikatu eta interpretatzeko eman beharreko aginduak emateko gaitasuna ematen zaio Alkatetzari.

Azken xedapena.

Ordenantza hau bere 19 artikuluekin, xedapen gehigarri bakarrarekin eta azken xedapenarekin indarrean sartuko de Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo astegunean.

Indargabetzeko xedapena.

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapena guztiak indargabetu egingo dira.

Halaber, espresuki indargabetzen da, hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzako 9.7 artikulua zati bat (9.7.1 – 9.8 eta dagokion eranskina), Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2010eko uztailaren 1ean argitaratua.“

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritziz hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “En este punto voy a seguir la misma línea que la comisión. Me voy a abstener, porque hay puntos de la ordenanza con los que no estoy de acuerdo.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Ados egonda ere, Beasainen aparkalekuekin ordenamendu bat behar dela, batzordean behin baino gehiagotan komentatu izan dudan bezala, gabezi bat ikusten diot markatu den plano honi, zehazki Bernedon. Jakinda eremu horretan bailara guztirako osasun zentroa daukagula, gertatu daitekeena da, OTA martxan jartzen denean kotxe asko Bernedora pasatzea. Creo que en esa zona debería de haber algunos aparcamientos controlados, aunque fueren gratuitos, para dar servicio a todos los usuarios que vienen al centro de salud. Se ma ha respondido diciendo que eso también está previsto, teniendo en cuenta cómo sea el comportamiento en otras zonas. Yo creo que tenemos que ser proactivos en zonas un tanto sensibles como pueda ser Bernedo. Yo pediría que en el momento en que se implantara la OTA, se tuvieran en cuenta desde el primer momento, unas plazas en el aparcamiento de Bernedo para dar atención a las personas que vienen al Centro de Salud, sin esperar a ver cómo evoluciona.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Cambiando el criterio de la comisión, en la que me abstuve aduciendo unas razones, que siguen estando ahí, pero haciendo un análisis posterior con mis compañeros, que son quienes entienden de estas cosas, vamos a aprobar esta Ordenanza, pero con una observación que ya el Alcalde la apuntado y es que vamos a observar y a mirar qué efectos se producen en esas zonas que no hay OTA, es decir, si se van quedar colapsadas y van a surgir un perjuicio grave. Si eso ocurriera, habría que tomar las medidas adecuadas. Pedimos que se controle. Estamos a favor.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk ere kontrako botorik ez dugu emango. Alfonsok eta Josik aipatzen duenaz gain, denok nahi dugu mugikortasuna egotea. Ez dut uste laguntzen duenik, ibilgailuek mugitzeko muga bakarria izatea eremu marroia. Eremu urdinean goiz batean jarri daiteke ibilgailua eta ateratzeko mugarik ez dago. Oriamendi kalean, gur eremua beste era batera jarriko genuke. Ez genuke hain zabala jarriko batez ere garajerik ez daudelako eta gehienak bizilagunak izango direlako txartela dutenak. Horiek beteko dute eta okerreanean egun osoan egon daitezke mugarik ez dutelako kanpotik etortzen direnak. Mugan dauden eremuak kotxez beteko dira, logikoa den bezala. Ez ordaintzeagatik, gertuena jartzea joko dugu. Eguerdian jendea bueltatzen denean, goizean kotxea utziko duenak bertan jarraitu dezake. Kasu berdina pasatzen da, orlegi gunean, hau da, Gipuzkoako plazan. Goizeko 7,00etan kotxea utzi daiteke arratsaldeko 4,30ak arte, mugarik ez dagoelako, ezinduekin pasatzen den antzera. Ezinduei ez zaie mugarik jartzen, nahiz eta tiketa jarri beharra izan. Nik uste dut garrantzitsua dela mugak betetzea. Ez dadila gertatu norbaitek hilabete kotxea edukitzea mugitu gabe, helburua mugikortasuna denean. Hasieratik beste era batea jarriko genuke eta horregatik abstentzioa bozkatuko dugu.”

Koldo Agirre jaunak (BILDU): “Alfonso, totalmente de acuerdo con lo que has dicho. También nosotros cogimos ese compromiso de ir analizando día a

día para conocer qué cambios hay que hacer. A Josi Insausti responderle que la propuesta de poner OTA en el ambulatorio es nuestra, pero que tampoco queremos extender demasiado la zona OTA, porque no sabemos verdaderamente qué necesidades va a haber. Cuanto más se abra el espacio de la OTA, más costosa es, y aunque no tiene carácter recaudatorio, tampoco queremos que sea deficitario, sino que el resultado sea cero. Con ese criterio es con el que se ha trabajado la ordenanza.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Urte bete daramagu antolakuntzako batzordean ordenantza horri bueltak ematen, beno zer edozer gutxiago. Lehengo urteko abenduan aurkeztu genuen baina pena ematen dit Aitor Aldasoro jaunaren ekarpenak gaur jasotzea eta ez honekin lanean aritu garenean.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik uste dut orain esan dudana, batzordeetan komentatuta dagoela. Gaia tratatu denean, alderdiko zinegotziek gaia landuta eraman dute eta aurrera esan dute.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Oriamendikoa, garajeena eta hori dena ez zen komentatu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hala ere iruditzen zait eta abstentzioa horregatik da, jakitun izango zaretela zenbat garaje dauden Oriamendi kalean, zenbat bizilagun diren kotxeekin, zenbait aparkaleku dauden. Niri hasieratik deigarria egin zitzaidana da, Oriamendi garajerik gabeko unean OTA jartzea. Sentsazioa ematean du, mugikortasuna baino, bizilagunak izango direla tokia hartu eta kotxea utziko dutenak.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Gu udalean sartu aurretik estudioa mahai gainean zegoen eta estudio horrek garbi esaten zuen, Oriamendi kalea ere OTAren esparruan egongo zela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bai, baina horrek ez du esan nahi alde egotea. Ikerketa bat eskatu daiteke eta horri ikutua eman.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Badakigu gaia noizik datorren eta nora iritsi garen. Ekarpenak kontutan hartuko dira eta elkarlanerako prest gaude.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta emaitza, ondorengoia izan da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (EAJ, H1, PP)

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Hasierako onespina ematea OTAri buruzko ordenantzari.

Bigarren. Horren ondorioz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzea da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.

7.- AUTOKARABANENTZAKO ETA BIZITOKI-IBILGAILUENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ORDENANTZA. Hasierako onespina ematea.

Ezagutzera eman da, autokarabanentzako eta bizitoki-ibilgailuentzako zerbitzugunearen ordenantza, hau da:

“1.artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da, alde batetik, autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak Beasaingo udalerriko Igartza Oletako aparkaleku publikoan, aparkatzea arautzea, pertsonen segurtasuna bermatzeko eta aparkaleku publikoan txandaketa egokia eta bidezko banaketa segurtatzeko eta beste aldetik, akanpada librearen debekua betetzen dela bermatzea.

2.artikulua. Erabilera-arauak.

Igartza-Oletako aparkaleku publikoan markatuko dira autokarabanentzat eta bizitoki-ibilgailuentzat izango diren aparkaleku-plazak.

Gune honetan erabilera-arau hauek bete behar dira:

1. Erreserbatutako lekuetan autokarabana edo bizitoki-ibilgailuak bakarrik izango dute aparkatzea, ez ordea, bestelako ibilgailuak, adibidez kamioiak, karabanak, autoak, e.a.

2. Autokarabanak edo bizitoki-ibilgailuak altxagarriak jar ditzakete aparkatuta daudenean.

3. Aparkatutako autokarabanak edo bizitoki-ibilgailuak, betiere errespetatu beharko dituzte plaza bakoitzaren mugak eta inolaz ere ezin izango da, kanpoaldera mahaiak, aulkiak, olanak, eguzkitakoak edo beste edozein tresna atera. Plaza horiek aparkatzeko bakarrik erabiliko dira.

4. Aparkaleku-plaza erabiltzea doakoa izango da.

5. Erabiltzaileek autokarabanek eta bizitoki-ibilgailuek sortutako ur grisak eta beltzak botatzeko gune berezia izango dute. Bestalde, ur edangarria hartzeko gunea eta argindar toma ere izango dute. Zerbitzu horiek erabili ahal izateko horretarako eratuko den txartela eskuratu beharko da. Txartel horren balioa, ordenantza fiskalean zehaztuko da eta non eskuratu daitekeen aparkalekuan bertan adieraziko da.

Txartelaren inguruko informazioa, Beasaingo Udalaren web-orrian (www.beasain.org) ere jarriko da.

6. Autokarabana edo bizitoki-ibilgailuentzako aparkaleku-plazan ezinezkoa izango da ibilgailu horiek garbitzea. Momenturo aparkaleku-plaza txukun egon beharko da eta beti ere, aparkaleku-plaza uzten denean garbi eta zaborrik gabe utziko da.

7. Zerbitzuguneak erabiltzen dituztenek onartu egingo dituzte inguru hori zaintzeko eta babesteko eta auzotasun jator eta gizalegezkoa izateko Udalak egindako oharpen guztiak.

8. Egonaldia gehienez ere hiru egun jarraikoa izango da. Ezinbesteko kasuetan bakarrik, eta aurretik Udaltzaingoaren edo Alkatearen baimenarekin, baimendutako gehienezko denbora hori gainditzea egongo da.

9. Igartzako aparkamenduan, autokarabanek edo bizitoki-ibilgailuek ezin izango dute aparkatu beraiantzat erreserbatutako plaza horiek ez diren gainerako plazetan.

3.artikulua. Kanpaldi librea debekatzea.

Debekatuta dago autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak aparkatzeko eremu erreserbatuan kanpaldi librea egitea. Debeku hori ez betetzea zigorra jartzeko arrazoia izango da.

Kanpaldi libretzat hartuko da:

- a) Aisiarako edozein tresna jartzea Igartza-Oletako aparkalekuan.
- b) Hiru egun baino denbora gehiago egotea autokarabana eta bizitoki-ibilgailuentzako aparkalekuan.
- c) Edozein udal ordenantzaren aurka doazen jarduerak.

4.artikulua. Ikuskapena

Udal honi dagokio ordenantzaren jarraipena egitea eta ikuskapena egitea betetzen den ala ez ezagutzeko eta horretarako eskumena eta ardura, agintaritza-agenteeek izango dute.

Ordenantza honekiko arau-haustek egiten badira, zigorrak ezartzeko prozedura izapidetuko da, Zehatzeko Ahala erabiltzeko Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Alkate jauna izango da zigortzaile-prozedurari hasiera emateko eta izapidetu ondoren, erabakitze eskumena izango duena.

5.artikulua. Arau-haustek

Arau-haustek, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke eta honela sailkatzen dira:

a) Arau-hauste arinak:

- Autokarabanentzat eta bizitoki-ibilgailuentzat erreserbatutako aparkaleku plazetatik kanpo aparkatzea.
- Autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak aparkalekuan garbitzea.

b) Arau-hauste larriak:

- Ibilgailua, kamioi, karabana, autoak, e.a. autokarabanentzat eta bizitoki-ibilgailuentzat erreserbatutako aparkalekuan aparkatzea.
- Igartzako aparkalekuan autokarabanek edo bizitoki-ibilgailuek beraientzat propio erreserbatutako plazetatik kanpo aparkatzea.
- Aparkalekua uzten denean, txukun eta garbi ez uztea.
- Hiru egun baino denbora gehiago egotea autokarabana eta bizitoki-ibilgailuentzako aparkalekuan, horretarako baimenik izaten ez bada.

c) Arau-hauste oso larriak:

- Kanpoaldera mahaiak, aulkiak, olanak, eguzkitakoak edo beste edozein tresna ateratzea.

6.artikulua. Zigorrak

Aipatutako arau-hauste horiei dagozkien zigorrak, 1985eko apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 141. artikuluan ezarritakoak izango dira.

7.artikulua. Erantzukizuna.

Beasaingo autokarabanak eta bizitoki-ibilgailuak aparkatzeko eremua ez da zaintzapeko eremua. Beraz, Beasaingo Udalak ez du erantzunik bere gain hartuko baldin eta gorabeherak, lapurretak edo antzekoak gertatzen badira aparkatuta dauden autokarabanetan eta bizitoki-ibilgailuetan

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Hasierako onespena ematea.

Bigarren. Horren ondorioz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzea da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.

8.- ZINEGOTZI KARGUA UZTEA.

Ondorengo proposamena ezagutzera eman da:

“Gaia: zinegotzi karguari uko egitea.

Kontuan izanik:

- PSE-EE/PSOEkkoa den ANA M^a CRESPO BLANCO andreak, 2013ko irailaren 17an aurkeztuako zinegotzi karguari uko egiteari buruzko idatzia.
- 2013ko irailaren 23an aurkeztutako idatziaren bitartez, zerrendako hurrengo den izangaiak, M^a PILAR VISPO CHAMOSA andreak ere, izangaiari eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza hartzea uko egin diola.

Alkatea naizen honek, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten diot:

Lehenik. Udal hauteskundetako PSE-EE/PSOE talde politikoaren zerrendetan aurkeztu zen, ANA M^a CRESPO BLANCO andreak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia onartzea.

Bigarren. M^a PILAR VISPO CHAMOSA andreak ere, zinegotzi kargua ez hartzeko azaldu duen nahia aintzakozat hartzea.

Hirugarren. Egoera honen berri Hauteskunde-Batzorde Zentralari ematea eta zerrendetako bosgarren hautagaiaren alde, hau da, SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS jaunaren alde, bidezkoa den egiaztatzea emateko eskatzea.”

Ana Crespo andreak (PSE-EE/PSOE), hitz egiteko Alkate jaunari baimena eskatu ondoren , zera adierazi du:

“He escrito unas palabras de despedida, contando mi paso por el Ayuntamiento de Beasain y cómo lo he sentido yo.

Después de seis años y cuatro meses, este verano he tomado la decisión de abandonar la concejalía. Hacia tiempo que me sentía muy cansada y me daba cuenta de que compaginar mi actividad profesional con esta responsabilidad suponía un gran esfuerzo para mi persona. La legislatura pasada de 2007 al 2011, cuando comencé mi actividad en el Ayuntamiento acababa de ubicarme en Beasain, y la verdad, ni por asomo pensé lo que iba a suponer para mi vida, principalmente porque me vi con la obligación de llevar protección. Esta situación condicionó mi vida y mi día a día y sobre todo condicionó mi vida social que casi se anuló por completo. Quiero dar las gracias a las personas que se atrevieron a acercarse a mí, a saludarme cuando iba por la calle. En especial recuerdo a una mujer que se me acercó y me abrazó. Gracias por ese abrazo. Lo necesitaba. Con el tiempo he entendido el miedo a acercarse a mí en esa situación y ahora, me siento tranquila. Por suerte las cosas han cambiado y puedo disfrutar de mi libertad y hacer una vida normal. Eso sí, nunca voy a olvidar esa vivencia que me ha marcado y tampoco voy a olvidar las víctimas que el terrorismo ha dejado en el camino. Muchos de ellos, amigos míos, Ni olvido ni lo entiendo. Quizás haya vecinos de Beasain que no conozcan a Ana como concejala del partido socialista, pero yo vine a este Ayuntamiento para trabajar y mejorar la vida de los vecinos del pueblo. No he venido para darme a conocer ni para llegar a ningún puesto, y así me voy, con la discreción que estos años he querido mantener. Trabajar en positivo, aportar, convencer, ha sido mi forma de hacer en las seis comisiones a las que he asistido regularmente. No creo en la política sucia ni en los partidismos.

Creo que hay otra forma de hacer política y así lo he hecho, conforme a mi pensamiento.

Quiero terminar dando las gracias a los y las concejales con los que he compartido el trabajo en las diferentes comisiones y plenos. Con todos vosotros y vosotras he aprendido, de nuestros aciertos y de nuestros errores. Gracias también, a los diferentes técnicos por facilitarme el trabajo, informarme y estar dispuestos a ayudarme siempre que lo he necesitado.

En fin, me voy cansada, pero satisfecha de no haber cambiado, de seguir siendo yo y fiel a mis principios y con muchas ganas y proyectos para empezar una nueva etapa.

Finalmente, a la persona que me va a sustituir, le deseo mucha suerte y mucho ánimo. Eskerrikasko denori.”

Bildutakoek txalotu egin dute, Ana Crespo andrearen hitzak.

Alkate jaunak (BILDU): “Desde el equipo de gobierno, agradecer la actitud que has mantenido con nosotros, porque siempre ha sido magnífica y desearte suerte.

Bozketa eginda, aho batez onartu da, Ana Crespo andreak aurkeztutako errenuntzia.

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2013ko uztailaren 1etik 2013ko irailaren 21erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2013ko uztailaren 1etik 2013ko irailaren 21erarte emandako Ebazpenak.

Aldez aurretik Alkate jaunari hitza eskatuta, Aitor Aldasoro jaunak esan du premiazko puntu modura, EAJ eta H1, udal taldeek mozio bat aurkeztu nahi dutela eta mozioa irakurtzeko baimena eman ondoren, ondorengo mozioa irakurri du:

“Beasainen zabortegiak hogeitaka urte daramatza herriko eta bailarako zaborrak jasotzen. Zabortegia gure lurretan egoteak, bailarari hamaika onura ekarri dizkion bezala, herritarrok eguneroko bizimoduan hainbat eragozpen ere jasan izan dugu. Usai txarra, kamioien joan etorria... Azken urteetan, San Markoko zabortegia itxi izanak, guzti honek egoera okerrera egitea eraman du. Ondorioetako bat, zabortegi ingurura kaioak etorri izanarena da. Egunero, ehundaka kaio dabilta inguruetan eta horrek ardura eta kezka sortarazi du herritarrengan eta bertako hainbat lantegietan, kaioek eragiten dituen kalteak medio.

Lantegi eta etxe gainak, kaioen zirinez betetzen ari dira eta Arriarango urtegia dute kaioek atseden leku.

Guzti hori horrela, Udalari eskaera luzatu nahi diogu:

1/ Kaioak erakartzen dituen Sasietako zabortegia, aurreikusita dagoen datan ixteko eskaera formala egitea mankomunitateari (2014ko uztaila).

2/ Epe motzera eta luzera, Arriarango urtegia kaioez josita egoteak, edaten dugun urari eragiten dioen ziurtatzea.

3/ Epe motzera, Sasietak neurri eraginkorrak hartu ditzan eskatzea kaioak uxatu edo murrizteko.”

Lehenik, premiazko puntu modura sartzea bozkatzea dagokionez, xehetasun honi buruz hitz egiteko txanda eman da eta ondorengo iritziak azaldu dira:

Alkate jaunak (BILDU): “Nosotros no apoyaremos el que se introduzca este punto en el orden del día, porque aunque no se hubiera presentado para incorporar al orden del día, el martes o miércoles u hoy a la mañana, se nos podía haber facilitado el documento para analizarlo.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Eso es cierto, pero también es cierto que otras veces se han presentado como mociones de urgencia y se han aceptado, debatido y votado. Apoyamos.”

Irakurritako mozioa premiazko puntu modura tratatzea bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, PSE-E/PSOE, H1, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Gehiengo absolutua alde azalduenez, mozioa eztabaidatzera pasatu da:

Alkate jaunak (BILDU): “Sasietatik lanean ari dira, kaioak bidaltzeko asmotan eta sortzen dituzten kalteei irtenbide bat emateko asmotan. Orain arte plan bat zegoen martxan eta ikusirik aurreko ostegunetik beste plan bat dagoela jarrita zabortegian bertan 24 orduz, ezezko botoa emango diogu mozioari.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Esta mañana he hablado con el Sr. Telleria de Ur Kontsortzioa y me ha comentado que la calidad del agua es exactamente igual que antes de las gaviotas y que no hay ningún problema a ningún nivel. Me ha dicho que emitirán un informe que enviarán el lunes, y ya os lo pasaremos. Al técnico de Sasieta le han requerido de EITB, para hacer

una entrevista sobre este tema y mañana si queréis lo podéis ver. Llevamos con este tema desde hace tiempo y considero que no tiene sentido la moción con el carácter de urgencia. Llevamos mucho tiempo intentando eliminar las gaviotas, porque los buitres ya se fueron gracias a que los comederos los han vuelto a naturalizar. Antiguamente los comederos estaban en los montes con los animales muertos y los han vuelto a naturalizar para que los buitres vayan allí y dejen de comer en Sasieta. Con las gaviotas están haciendo un nuevo experimento que en teoría se acaba el martes, y los resultados ya se están viendo porque las gaviotas no están como estaban hace unos días. Están más nerviosas y se están desplazando a otros lugares. Es un tema que está en marcha, que lo seguimos muy de cerca. El lunes con todos los informes, tanto el de Sasieta como el de Ur Kontsortzioak, vamos a darlos a conocer a todos los grupos políticos y a la prensa.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Sabemos que una de las obligaciones de Ur Zerbitzuak es recoger tomas todos los días y se nos dice que las tomas están dando bien, pero por eso se pide no a corto plazo sino a largo. Ahora Arriarán estando como está lleno, está todo blanco a los lados, pero el problema será cuando baje y vuelva a subir.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Cuando se den los problemas los vamos a solucionar. En este momento no hay problema de agua. El agua está correctamente bien.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si pero al haber un cambio de habitat de las gaviotas, hay preocupación en la calle.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Nosotros estamos encima pero vamos a dar datos técnicos y no vamos a generar más incertidumbre todavía.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Por eso se pide que emitan informe a corto y a largo plazo.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Estamos encima y de hecho a los que más nos preocupa es a los que vivimos aquí, que bebemos el agua del grifo.”

Gaia nahi adina eztabaidatu ondoren, EAJ eta H1-en mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)
Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)
Abstentzioak: 1 (PSE-E/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu da mozioa.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

IKASTOLA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Queríamos saber si es posible en qué situación se encuentra todo el tema de la Ikastola Andramendi, Cruz Roja. Se aprobó un presupuesto, hay una partida..., y en un momento determinado se coge con mucha ilusión, con ganas, pero llevamos seis, siete meses, no recuerdo bien y no sabemos absolutamente nada. Hay un silencio como el de Rajoy. Nos gustaría saber, si están los dineros justos, si hay otras historias, si se está trabajando, si se va a hacer algo, si no se va a hacer nada, porque ya estamos en curso lectivo y no sabemos que va a pasar el año que viene. Hay incertidumbre y no es normal que llevemos con esta situación ocho meses.”

Zezipia Herrador Andreak (BILDU): “Si que es verdad que el tema se está alargando más de lo que quisiéramos todos, pero también es verdad que estamos intentando conseguir la mejor fórmula para todo. La primera fórmula que se puso sobre la mesa, creo que nos dimos cuenta a tiempo de que no era la mejor para los vecinos beasaindarras, que son los que al fin y al cabo pagan los impuestos. Estamos trabajando en el tema y nos estamos encontrando en el camino con más problemas que los esperados. Es una mesa a tres bandas y las negociaciones están siendo un poco duras. Queremos que todas las partes salgan lo mejor posible con este tema y estamos intentando encontrar la mejor solución. Como he dicho al principio el tema se está alargando y creo que nadie tiene más interés que nosotros en que esto se desbloquee cuanto antes.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Ya pero como se dice en el argot canino, ¿son galgos o podencos?. ¿Avanzamos o no avanzamos?. Si estamos, nos juntamos, nos reunimos, es complicado, es difícil, ¿hay algo o no hay nada?.

Zezipia Herrador Andreak (BILDU): “En este momento no tenemos nada cerrado. Si tuviéramos algún convenio cerrado lo sabríais. En el momento en que tengamos algo lo vais a saber.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Se han hecho proyectos para que en Ittola vaya lo de la Cruz Roja, ¿no?.”

Zezipia Herrador Andreak (BILDU): “Ittolako proiektuarekin hasi ginen lanean, baina ondoren beste proposamen bat iritsi zen mahai gainera eta proposamena zen Gurutze Gorriko ikastaroak Goierri eskolara bideratzea. Orduan Ittolakoak ez zuen zentzu gehiegirik. Aldi batetik beste, proposamen

bat, bestea eta azkenean ba, momentuz ez dago ezer itxita. Zerbait itxita dagoenean, jakingo duzue.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Repetidas veces hemos pedido, sobre todo cuando tenemos problemas para asistir a las comisiones en horario de mañana, que se cambien a las tardes, porque en horas laborables aunque tengamos nuestros derechos, nos ponen pegas para acudir por las mañanas. Hemos pedido, la ultima esta semana y se nos ha negado o no se ha hecho caso por lo que sea. Pediría que se tenga en cuenta la petición de que la comisión se pase a las tardes.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Nork esan du ezetz?.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Se ha hecho una petición a antolakuntza para pasar a las tardes, y se vuelve a hacer a la mañana. Se nos ponen pegas y se pide por eso.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Astelehen goizean egin zen batzordea, gai bat Plenoko gai-zerrendan sartu behar zelako, baina hori azaldu nuen batzordean. Gure legealdiko batzordean, nik hori eskatu nuen, mesedez, arratsaldetan batzordea jartzea eta zuk zeuk erantzun zenidan nire eskubidea zela goizetan etortzea. Orain, aldiz tortilari buelta ematen zaio. Eskatzen baduzu arratsalde izatea, ez daukagu inolako oztoporik eta arratsaldean egingo dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Eskubidea duzu, baldin eta lanean uzten badizue. Azken lau urteetan, hirigintza batzordea bost sei aldiz aldatu zen ordutegiz, lanean arazoak zituen jendeari egokitzeko. Dinamika hori jarraitzea besterik ez dut eskatzen.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Nik uste dut batzorde gehienetan denon artean adostu ditugula batzordeen ordutegiak. Aitor-ek astelehenean oso ondo azaldu zuen, gaur OTAko gaia tratatu ahal izateko goizean egin zela, baina hemendik aurrera arratsaldeetan egingo zirela uste dut komentatu zuela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baina astelehen horretan egin zitekeen arratsaldean eta eskatu egin zen eta kasurik ez zen egin.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Ez dut uste ika-miketan sartu behar garenik.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Kontutan izango da, denoi interesatzen zaigulako eta herritarrek parte hartzea nahi dugulako. Horregatik hasieratik planteatu zen arratsaldean egitea. Kontutan hartuko direla dudarik ere ez izan.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.